

TXOMIN GARAT

LEHEN PEREDIKUA

- 1**
Jentetze agurgarria,
arrastiri hon oroer,
Manex'ta Xüberotarrer,
gazte eta zaharrer.
- 2**
Egünko gure süjeta,
Garat Üztaritzekoa,
Domingo izen ttipia,
abokatü famatüa.
- 3**
Larresoroko kolegioan,
eginik lehen eskolak,
Gero joan zen Bordelerat,
deretxoaren ikastera.
- 4**
Abokatü ageria,
han züan esküalatü,
Emaztea ezagütü,
Bordelen ziren kokatü.
- 5**
Lau seme alabek züen,
garat familia handitü,
Pierra seme gehiena,
kantari eder agertü.
- 6**
Frantziako erregeak,
Luis hamaseigarrenak,
Galtegin herri güzier,
häütatzez ordezkariak.
- 7**
Ordüan Eüskaldünentzat,
memento izigarriak,
Betiko beren züzenak,
gaü bakoitzez deseginak.
- 8**
Domingo'ta Josep Garat,
Lapurdiko häütetsiak,
Jüstiziaren izenean,
traditü züen Herria.
- 9**
Egün gaitzak sortü ziren,
Lapurdiko jenteentako
Landesetarat haizatürrik,
milako bat da zentüko.

LEHEN PEREDIKUA

- 1**
Jendetza agurgarria,
arrastiri on oroiei,
manex eta zuberotarrei,
gazte eta zaharrei.
- 2**
Egungo gure sujeta,
Garat Uztaritzekoa.
Domingo izen ttipia,
abokatu famatua.
- 3**
Larresoroko kolegioan
eginik lehen eskolak,
gero joan zen Bordelerat,
zuzenbidearen ikastera.
- 4**
Abokatu agiria
han zuen eskuratu.
Emaztea ezagutu,
Bordelen ziren kokatu.
- 5**
Lau seme-alabak zuten
Garat familia handitu.
Pierra seme gehiena
kantari eder agertu.
- 6**
Frantziako erregeak,
Luis hamaseigarrenak,
galdegin herri guztiei
hautatzez ordezkariak.
- 7**
Orduan euskaldunentzat
memento izugarriak,
betiko beren zuzenak
gau bakoitzez deseginak.
- 8**
Domingo eta Josep Garat,
Lapurdiko hautetsiak.
Justiziaren izenean
traditu zuten Herria.
- 9**
Egun gaitzak sortu ziren
Lapurdiko jendeendako.
Landesetarat haizaturik,
milako bat da zenduko.

sujet: gai

gehien: nagusi

galdegin: eskatu

zuzen: eskubide
gau bakoitzez:
gau bakarreanhaizatu: aienatu, ihes eragin
zendu: hil

10

Gertakari latz bat Saran,
ordüetan zen agitü
Maddalen neska gaztea,
Frantsesek züen tirokatü.

11

Domingok azken urteak,
iragan zütüan Üztaritzen
Emanez bere ahalak,
Herriaren zerbützatzen.

12

Orai aski düt erranik,
lekü egin pastoral jeiari
Ütziz jokülariak,
istoriaren zabaltzeari.

10

Gertakari latz bat Saran
orduan zen agitu.
Maddalen neska gaztea
frantsesek zuten tirokatu.

11

Domingok azken urteak
iragan zituen Uztaritzen,
emanez bere ahalak
herriaren zerbitzatzen.

12

Orain aski dut erranik.
Leku egin pastoral jaiari,
utziz jokalariak
istorioaren zabaltzeari.

agitu: gertatu

jokalari: antzezle

1. JELKALDIA**Belzebuth****13**

Egiazko ustegabea,
gü hebentzek agitzea
Mündü horren aitzinean,
infernüko erregeak.

Mihigorri**14**

Behar diagü haütatü,
aitzineko herroketan
Izateko haur edo gazteetan,
sarri erretzeko süan.

Belzebuth**15**

Mihigorri inoxenta,
zer uste dük gazteria
Hire beha egonen dela,
gaixo бүрү xilo perttola.

16

Hanitez hobe diagü,
mahain baten aintzinean
Ardu hon hürüpatzea,
tripa ontsa betetzean.

Mihigorri**17**

Horik dütüük hitz ederrak,
Belzebuth debrü kiskila
Artean behar diagü,
arinki eman frisatak.

1. JELKALDIA**Belzebuth****13**

Egiazko ustekabea,
gu hementxe agitzea,
mundu horren aitzinean
infernuko erregeak.

Mihigorri**14**

Behar diagu hautatu
aitzineko herronketan,
izateko haur edo gazteetan,
sarri erretzeko suan.

Belzebuth**15**

Mihigorri inozentea,
zer uste duk? Gazteria
hire beha egonen dela?
Gaixo buru zulo perttolia!

16

Anitez hobe diagu
mahai baten aintzinean
ardo on hurrupatzea,
tripa ontsa betetzea.

Mihigorri**17**

Horiek dituk hitz ederrak,
Belzebuth deabru kiskila.
Artean behar diagu
arinki eman frisatak.

herronka: lerro**sarri:** laster**perkoli:** ergel**kiskil:** doilor**frisat:** dantza-jauzi bat

2. JELKALDIA

Domingoren aita-amak beren semearen geroaz.

Pierra Garat**18**

Orai potiko gazte hiz,
Domingo seme maitea
Hebentik harat behar hüke,
geroari josi begia.

Maddi Garat**19**

Nik ere ama bezala,
egiten pentsamentüka
Txerkatüz adostarzüna,
hiredako hoberena.

Domingo Garat**20**

Gogoala jiten zitazüt,
üsü ene haur denbora
Maleruski hurtü dena,
bihotza dizüt minbera.

Maddi Garat**21**

Segür hitaz berexreak,
sofriarazten bihotza
Bena badiat sinestea,
zorrotz dükala бүрүa.

Pierra Garat**22**

Mementoa hor dük orai,
haütü baten egiteko
Ikasketa gustükoak,
lan bati бүрүz joaiteko.

Domingo Garat**23**

Haurretik gogoan dizüt,
badakit zer düdan nahi
Züzenbidea düdala,
Bordelen nahi ikasi.

24

Jente xümeen lagüntzea,
hori ene helbүrүa
Eüskal Herriko deretxoak,
izan ditian azkartüak.

2. JELKALDIA**Pierra Garat****18**

Orain mutiko gazte haiz,
Domingo seme maitea.
Hemendik harat behar huke
geroari josi begia.

Maddi Garat**19**

Nik ere, ama bezala,
egiten pentsamendua,
xerkatuz adostasuna,
hiredako hoberena.

Domingo Garat**20**

Gogora jiten zait
usu ene haur denbora,
maluruski urtu dena.
Bihotza dut minbera.

Maddi Garat**21**

Seguru hitaz bereizteak
sofriarazten bihotza,
baina badiat sinestea
zorrotz duala burua.

Pierra Garat**22**

Mementoa hor duk orain
hautu baten egiteko:
ikasketa gustukoak
lan bati buruz joateko.

Domingo Garat**23**

Haurretik gogoan dut.
Badakit zer dudan nahi.
Zuzenbidea dudala
Bordelen nahi ikasi.

24

Jende xümeen laguntzea,
hori ene helburua;
Euskal Herriko eskubideak
izan daitezen azkartuak.

xerkatu: bilatu**jin:** etorri**maluruski:** zoritxarrez**azkartu:** indartu

KANTA I
Bordelerat joatea

a1

Ene haur denbora zait, lañoki pasatü
 Nihaur ohartü gabe, urteak lerratü
 Hebentik joatea, orai da hüilantü
 Bihotza kargatürrik, behar dit partitü.

a2

Üztaritze herria, ene sor leküa
 Azkarki etxek ezak, Lapurdin biltzarra
 Artatüz harekin, Kapito Harria
 Horiek beitüe zaintzen, Eüskaldün legea.

a3

Oi zer goxotarzüna, Mailia etxean
 Irus izan girade, alkartarzünean
 Ehots handirik gabe, haurriden artean
 Ützi behar zütüet, nigarra begian.

a4

Banoa ikastera, Bordele hirila
 Urte zombaitentako, ni han bizitzera
 Gero zale ützültzeko, berriz Lapurdila
 Herriaren süstatzeko, bai Üztaritzera.

KANTA I
Bordelerat joatea

a1

Ene haur denbora zait lañoki pasatu.
 Nihaur ohartu gabe, urteak lerratu.
 Hemendik joatea, orain da hullantu.
 Bihotza kargaturik, behar dut partitu.

a2

Uztaritze herria, ene sorlekua,
 azkarki atxiki ezak Lapurdin biltzarra,
 artatuz harekin Kapito Harria,
 horiek baitute zaintzen Euskaldun legea.

a3

Oi, zer gozotasuna Mailia etxean!
 Uros izan gara elkartasunean
 herots handirik gabe haurrideen artean.
 Utzi behar zaituztet negarra begian.

a4

Banoa ikastera Bordele hirira,
 urte zenbaitendako ni han bizitzera,
 gero zalu itzultzeko berriz Lapurdira,
 herriaren sustatzeko, bai, Uztaritzera.

lañoki: apalki

hullantu: hurbildu
partitu: abiatu

uros: zoriontsu

herots: zarata

haurride: neba-arrebak

zalu: arin

3. JELKALDIA

Domingo bere irakaslearekin hizketan.

Irakaslea**25**

Züzenbide ikasterat,
jin hiz Bordele hirirat
Laster ezagütüko dük,
nor dügün gogozkaria.

Domingo Garat**26**

Entzün düt Montesquieu dela,
segür jakintsün handia
Haren erranetarik dizüt,
nik ebiltzeko gogoia.

Irakaslea**27**

Erromanoen legea,
arau güzien erroa
Ikaskuntza beharrena,
hartan düt ene bermea.

Domingo Garat**28**

Abokatü kargüalat,
nahi nintzateke heltü
Hartakoz zure erraner,
osoki jarraiki gei düt.

Irakaslea**29**

Ahalak oro badütük,
kargü hortarat heltzeko
Hiru urte bete gabe,
lege gizon izateko.

3. JELKALDIA**Irakaslea****25**

Zuzenbide ikasterat
jin haiz Bordele hirirat.
Laster ezagutuko duk
nor dugun gogozkaria.

Domingo Garat**26**

Entzun dut Montesquieu dela
segur jakintsun handia.
Haren erranetarik dut
nik ibiltzeko gogoia.

Irakaslea**27**

Erromatarren legea,
arau guztien erroa,
ikaskuntza beharrena.
Hartan dut ene bermea.

Domingo Garat**28**

Abokatu kargurat
nahi nuke heldu.
Hartakoz, zure erranei
osoki jarraiki gai diet.

Irakaslea**29**

Ahalak oro badituk
kargu horretarat heltzeko.
Hiru urte bete gabe
lege gizon izateko.

gogozkari: maisu

jarraiki gai: jarraituko

4. JELKALDIA

Domingok emaztegaiaren ezagutza egiten du.

30

Bordeleko hiri huntan,
eskolak dütüt ürrentü
Haütatü ofizioa,
azkenean esküratü.

Pantxika**31**

Zure heben kürützatzea,
hanix goxo izan düzü
Ez niz batere debeatzen,
zurekilan laket nüzü.

32

Hebenko lege gizonek,
aisa zütüe honartzen
Zure ideia zabalek,
beitütüe oro xarmatzen.

Domingo Garat**33**

Bilgünetan honarturik,
zuri dütit zor eskerrak
Zutarik orano gehiago,
esperantxa ene bihotzak.

Pantxika**34**

Badakit zer düzün nahi,
zure süak dü salatzen
Ni ere zure ondoan,
ez niz batere debeatzen.

Domingo Garat**35**

Orai mentüratzen nüzü,
galto baten egitera
Nahi nikezü betiko,
jin zitian ene ondora.

4. JELKALDIA**30**

Bordeleko hiri honetan
eskolak ditut urrendu.
Hautatu ofizioa
azkenean eskuratu.

Pantxika**31**

Zure hemen gurutzatzea
anitz goxo izan da.
Ez naiz batere debeiatzen,
zurekin laket naiz.

32

Hemengo legegizonek
aise zaituzte onartzen,
zure ideia zabalek
baitituzte oro xarmatzen.

Domingo Garat**33**

Bilguneetan onarturik,
zuri dizkizut zor eskerrak.
Zutarik oraino gehiago
esperantza ene bihotzak.

Pantxika**34**

Badakit zer duzun nahi.
Zure suak du salatzen.
Ni ere zure ondoan
ez naiz batere debeatzen.

Domingo Garat**35**

Orain menturatzen naiz
galto baten egitera.
Nahi nuke betiko
jin zaitezen ene ondora.

urrendu: amaitu**debeiatu:** aspertu
laket: gustura**xarmatu:** liluratu**zutarik:** zugandik**galto:** galdera**jin:** etorri

KANTA II**Domingo eta Pantxikaren ezteiak****b1**

Guri jin zaikü orena
 Domingo eta Pantxika
 Aspalditik egürükitzen
 Jinkoaren aitzinean
 Betikoz gira jüntatzen
 Zinez dügü hitzemaiten.

Maddi Garat**36**

Ikus ezak oraidanik,
 nurekin egin bizia
 Pantxika hor ene ustez,
 duk neskatila propia.

Elena Gouteyrou**37**

Abokatü gazte hori,
 düzü ene gustükoa
 Arrotza izanik ere,
 üdüri dü solidoa.

Apaiza**38**

Domingo nahi düzüa,
 hartü zük lagünetako
 Hunarat jinik den Pantxika,
 bizitze osorako?

39

Orai zuri dit Pantxika,
 arraberritzen galtoa
 Senartzat nahi düzüa,
 Domingo ondoan düzüna?

KANTA II**Domingo eta Pantxikaren ezteiak****b1**

Guri jin zaigu orena,
 Domingo eta Pantxika,
 aspalditik igurikitzen.
 Jainkoaren aitzinean
 betikoz gara juntatzen.
 Zinez dugu hitzematzen.

Maddi Garat**36**

Ikus ezak oraindanik
 norekin egin bizia.
 Pantxika hori, ene ustez,
 duk neskatila propioa.

Elena Gouteyrou**37**

Abokatu gazte hori
 da ene gustukoa.
 Arrotza izanik ere,
 irudi du solidoa.

Apaiza**38**

Domingo nahi duzua
 hartu zuk lagunetako
 hona jinik den Pantxika
 bizitza osorako?

39

Orain zuri dizut, Pantxika,
 arraberritzen galtoa.
 Senartzat nahi duzua
 Domingo, ondoan duzuna?

oren: ordu**iguriki:** itxaron**propio:** eder**duzua?:** al duzu?**lagunetako:** laguntzat**arraberritu:** errepikatu

KANTA II
Domingo eta Pantxikaren ezteiak

b2

Etxekoen etsenplia
Haiek erakatsi bidea
Izanen da gure xedea
Salbü egün lagünekin
Nahi dügü besta egin
Kantü, dantza, algarrekin.

b3

Arteko amodioa
Nahi dügü partekatü
Bihar ere hola hola
Etxea dener zabaltü
Bordele eta Lapurdiko
Sort leküaz oritüko.

KANTA II
Domingo eta Pantxikaren ezteiak

b2

Etxekoen etsenplua,
haiek irakatsi bidea
izanen da gure xedea.
Salbu egun lagunekin
nahi dugu besta egin,
kantu, dantza elkarrekin.

b3

Arteko amodioa
nahi dugu partekatu.
Bihar ere hola-hola
etxea denei zabaldu.
Bordele eta Lapurdiko
sorlekuaz oroituko.

xede: helburu

5. JELKALDIA

Bordelen, beltz esklaboen altxamendua.

Domingo Garat**40**

Bordeleko salerosleak,
aia dira aberasten
Jente beltzak esklabotzat,
dütüe üsü erabilten.

Storner anderea**41**

Ameriketarik jin düzü,
merkatü hau Europarat
Afrikarrak beitütüe,
etxekitzen lehertüak.

Aisha**42**

Artean gure gizonak,
gure seme 'ta senarrak
Gaizki dira tratatüak,
üdüri düe kabaleak.

Domingo Garat**43**

Frantziako erregeak,
tratü hori dü baieztatzen
Apezek ere elizatik,
ber gisan düe honartzen.

Aisha**44**

Entzün Langorrian apeza,
bere peredikü ospetsüa
Hartzez sosdünen altea,
ekarten deie süstengüa.

Storner anderea**45**

Jinkoari sinesteak,
betidanik dü gaitzesten
Larrüaren koloreari,
ez zaio baliorik emaiten.

Aisha**46**

Aski arrazakeria,
gü beigira bühürtüko
Gizonekilan batean,
borrokan gira sartüko.

Domingo Garat**47**

Hola badügü segitzen,
ttipia da oldartüko
Aberatsen zapalkuntzak,
gerla gorria piztüko.

5. JELKALDIA**Domingo Garat****40**

Bordeleko salerosleak
aia dira aberasten.
Jende beltzak esklabotzat
dituzte usu erabiltzen.

Storner anderea**41**

Ameriketarik jin da
merkatu hau Europarat,
afrikarrak baitituzte
atxikitzen lehertuak.

Aisha**42**

Artean gure gizonak,
gure seme eta senarrak,
gaizki dira tratatuak,
irudi dute kabalak.

Domingo Garat**43**

Frantziako erregeak
tratu hori du baieztatzen.
Apaizek ere elizatik
ber gisan dute onartzen.

Aisha**44**

Entzun Langorrian apaiza,
bere perediku ospetsua.
Hartzez sosdunen aldea,
ekartzen die sostengüa.

Storner anderea**45**

Jainkoari sinesteak
betidanik du gaitzesten.
Larruaren koloreari
ez zaio baliorik ematen.

Aisha**46**

Aski arrazakeria,
gu baikara bihurtuko.
Gizonekin batean
borrokan gara sartuko.

Domingo Garat**47**

Honela badugu segitzen,
ttipia da oldartuko.
Aberatsen zapalkuntzak
gerra gorria piztuko.

kabala: abere**sosdun:** dirudun**bihurtu:** aurre egin

6. JELKALDIA

Aisha emakume afrikarraren borroka.

Nayrac**48**

Euskaldün izanik ere,
züzenbiden ikerzale
Garaten ideia handiez,
ez gütük batere alde.

Langorrian apaiza**49**

Ni ere horri bürüz noa,
ene kontzientziak dio
Gizon beltzek ez düela,
haüzü egoiteko libro.

Kater**50**

Frantziako erregeaz,
niz ohoratürük izan
Dütüdalarik langile,
berrehün bat ontzietan.

Floirak**51**

Abokatü gazte horrek,
zer nahi deikü kontatzen
Jente arruntak beidütü,
bere ahoz ilüsitzen.

Nayrac**52**

Emazte beltz azkar horrek,
bere ezpain handiekin
Berehala ükenen dik,
pausüa hor presontegian.

Aisha**53**

Goazen ahalkerik gabe,
bürü eginez sosdünari
Algarri eskü emanez,
oldartzez botereari.

54

Emazte afrikanoa,
azkar eta sento beita
Lehertürük izatea,
ezin dü haboro süporta.

6. JELKALDIA**Nayrac****48**

Euskaldun izanik ere,
zuzenbidean ikertzaile.
Garaten ideia handiez
ez gaituk batere alde.

Langorrian apaiza**49**

Ni ere horri buruz noa.
Ene kontzientziak dio
gizon beltzek ez dutela
haizu egoteko libre.

Kater**50**

Frantziako erregeaz
naiz ohoraturik izan,
ditudalarik langile
berrehun bat ontzitan.

Floirak**51**

Abokatu gazte horrek
zernahi digu kontatzen,
jende arruntak baititu
bere ahoz ilusitzen.

Nayrac**52**

Emazte beltz azkar horrek
bere ezpain handiekin
berehala ukanen dik
pausua hor presontegian.

Aisha**53**

Goazen ahalkerik gabe
buru eginez sosdunari.
Elkarri esku emanez,
oldartzez botereari.

54

Emazte afrikarra,
azkar eta sendo baita,
leherturik izatea
ezin du haboro soporta.

haizu: zilegi**ilusitu:** ilusioz bete**pausu:** geldialdi**ahalke:** lotsa**haboro:** gehiago

KANTA III**c1**

Biziaren erdi bide, oraikoz ustez eginik,
 Bordeleko hiri huntan, orotarik ikusirik,
 Euskal Herriari bürüz, gogoa zait ütülirik,
 Sobera lüzaz beinintzan, egon kanpo sort herritik.

c2

Ene sortetxe Mailia, maleruski da hüstüa,
 Ait' Ama hilerrian, arreba aldiz serora,
 Zer kanbioak dirateke, harat berriz ütültzean,
 Halere adixkideak, haidürü dütüt herrian.

c3

Lüza gabe beharko dü, bildü Lapurdin Biltzarrak,
 Oi ene nahiküntea, ordezkari izatea,
 Üztaritzeko haütazaleek, nitan balükee fedea,
 Anaiarekin zaintzeko, aitek ützi huntarzünak.

c4

Euskal Herriko züzenak, Parisen ez ezagützen,
 Gük heben demokrazia, aspalditik jarraikitzen,
 Kapito Harrian dügü, jenten legea bermatzen,
 Lapurtar güziek düe, ikus moldea emaiten.

KANTA III**c1**

Biziaren erdi bide oraingoz ustez eginik,
 Bordeleko hiri honetan orotarik ikusirik,
 Euskal Herriari buruz gogoa zait itzulirik,
 sobera luzaz bainintzen egon kanpo sorterritik.

c2

Ene sortetxe Mailia maluruski da hustua,
 aita eta ama hilerrian; arreba, aldiz, serora.
 Zer kanbio dirateke harat berriz itzultzean?
 Halere, adiskideak aiduru ditut herrian.

c3

Luze gabe beharko du bildu Lapurdin Biltzarrak.
 Oi, ene nahikundea, ordezkari izatea.
 Uztaritzeko hautatzaileek nitan balukete fedea
 anaiarekin zaintzeko aitek utzi ondasunak.

c4

Euskal Herriko zuzenak Parisen ez ezagutzen.
 Guk hemen demokrazia aspalditik jarraikitzen.
 Kapito Harrian dugu jendeen legea bermatzen.
 Lapurtar guztiek dute ikusmoldea ematen.

sobera: nahiko**maluruski:** zoritxarrez**dirateke:** izango dira
aiduru: zain**aitak:** arbasoak**zuzen:** eskubide

7. JELKALDIA

Luis XVI.a Frantziako erregeak lurralde-ordezkariek Parisera deitzen ditu.

Necker**55**

Luis hamaseigarrenaren manüz,
jinik nüzü erraitera
Züen herri bakoitzetan,
haütatzez ordezkaria.

Olhonce**56**

Oihüstatzen deizüt klarki,
girela gü Nafartarrak
Hari osoki lotüa,
dela Baxe Nafarroa.

Caupenne**57**

Lapurdik aspaldi danik,
badü bere izatea
Ez da zuri behatüko,
zaiolarik ükatüa.

Necker**58**

Parise hiri nausialat,
lehen bai lehen jin zitee
Beste haütetsiekilan,
oro mintzatüko zidee.

Darraing**59**

Xüberoko probintzia,
oso düzü berezia
Pariseko berrietaz,
güti da axolatüa.

7. JELKALDIA**Necker****55**

Luis hamaseigarrenaren manuz
jinik naiz erratera
zuen herri bakoitzetan
hautatzez ordezkaria.

Olhonce**56**

Oihuztatzen dizut klarki
garela gu nafarrak,
hari osoki lotua
dela Baxenabarre.

Caupenne**57**

Lapurdik aspaldidanik
badu bere izatea.
Ez da zuri behatuko,
zaiolarik ukatua.

Necker**58**

Paris hiri nagusirat
lehenbailehen jin zaitezte.
Beste hautetsiekin
oro mintzatuko zarete.

Darraing**59**

Zuberoko probintzia
oso da berezia.
Pariseko berriez
gutxi da axolatua.

manu: agindu**jin:** etorri**oihuztatu:** aldarrikatu**behatu:** entzun

8. JELKALDIA

Ordezkarien hautaketa.

Josep Garat**60**

Erregearen aldetik,
jin zaikü arrapostüa
Lapurdik segür badüke,
lege gizon haütatüa.

61

Beharko da izentatü,
popülüaren bi orde
Eliza'ta noblezia han,
izanen beitirade.

Jean-Louis de St-Esteben**62**

Apez lagünek ni naüe,
haien ordari agertü
Eüskal Herriko eliza,
nahi dügülakoz zaintü.

Nicolas de Haraneder**63**

Makea herriko kuntea,
aitor seme eüskaldüna
Ene aldetik nahi dit,
süstengi Eüskal Herria.

Diturbide**64**

Lapurtarren izenean,
huna zoin diren emaitzak
Josep'ta Domingo Garat,
gure zaintzale deitüak.

8. JELKALDIA**Josep Garat****60**

Erregearen aldetik
jin zaigu arrapostua.
Lapurdik segur baduke
legegizon hautatua.

61

Beharko da izentatu
populuaren bi orde,
Eliza eta noblezia han
izanen baitira.

Jean-Louis de St-Esteben**62**

Apaiz lagunek ni naute
haien ordari agertu,
Euskal Herriko eliza
nahi dugulakoz zaindu.

Nicolas de Haraneder**63**

Makea herriko kondea,
aitoren seme euskalduna,
ene aldetik nahi dut
sostengatu Euskal Herria.

Diturbide**64**

Lapurtarren izenean,
hona zein diren emaitzak:
Josep eta Domingo Garat
gure zaintzaile deituak.

arrapostu: erantzun**duke:** izango du**ordari:** ordez kari

KANTA IV**d1**

Plazer handiekin dūgū,
hautū hori gūk honartzen
Entzūnaraziko dūgū,
botza ozenki Parisen.

d2

Eūskal Herriaren geroa,
da iralpen handietan
Ikara batek hartūrik,
itxaropena gogoan.

d3

Esker mila Lapurtarrer,
gūtan diren fidantziaz
Orai diagū ordūa,
ūzteko gure Herria.

KANTA IV**d1**

Plazer handiekin dugu
hautu hori guk onartzen.
Entzunaraziko dugu
boza ozenki Parisen.

d2

Euskal Herriaren geroa
da iraulketa handietan.
Ikara batek harturik,
itxaropena gogoan.

d3

Esker mila lapurtarrei,
gutun diren fidantziaz.
Orain diagu ordua
uzteko gure herria.

9. JELKALDIA

Lurralde-ordezkarriak Erregearekin biltzen dira.

Luis XVI.a erregea**65**

Plazer handiarekilaran,
zütüet errezebitzen
Züek Herrialdekoak,
heben zidee züen etxen.

Domingo Garat**66**

Eüskaldünen izenean,
hunarat jinik girade
Herrietako jentea,
jüstiziaz düzü gose.

Orleansko dukea**67**

Pariseko popülüa,
oso dago irautzia
Karrika'ta Jauregiak,
indarrez dütü hartüak.

Josep Garat**68**

Kasü non zer erabaki,
gütartetik jelkiko den
Bardintarzünarekilaran,
oroit beti nunko giren.

Necker**69**

Frantzia estadüko kesak,
ari dira kasik hüsten
Lege Biltzarreko Jaunek,
zergarik ez düe pakatzen.

Darraing**70**

Gük ere Xüberotarrek,
nahi dütügü etxeki
Gotorki gure üsantzak,
lehen bezala fidelki.

Aguillon dukea**71**

Nobleziak beharko dü,
ttipier ere behatü
Bere sakolatik ere,
diru zombait zatikatü.

Oihonce**72**

Nafarroako lurraldeak,
badü bere erreinüa
Frantzia eta Españak,
betidanik honetsia.

9. JELKALDIA**Luis XVI.a erregea****65**

Plazer handiarekin
zaituzte errezebitzen.
Zuek, herrialdekoak,
hemen zarete zuen etxen.

Domingo Garat**66**

Euskaldunen izenean
honat jinik gara.
Herrietako jentea
justiziaz da gose.

Orleansko dukea**67**

Pariseko populua
oso dago erauzia.
Karrika eta jauregiak
indarrez ditu hartuak.

Josep Garat**68**

Kasu non zer erabaki
gu tartetik jalgiko den.
Berdintasunarekin,
oroit beti nongo garen.

Necker**69**

Frantzia Estatuko kaxak
ari dira kasik husten.
Legebiltzarreko jaunek
zergarik ez dute pagatzen.

Darraing**70**

Guk ere, zuberotarrek,
nahi ditugu atxiki
gotorki gure usantzak,
lehen bezala fidelki.

Aguillon dukea**71**

Nobleziak beharko du
ttipiei ere behatu.
Bere sakelatik ere
diru zenbait zatikatu.

Oihonce**72**

Nafarroako lurraldeak
badu bere erreinua,
Frantzia eta Espainiak
betidanik onetsia.

erauzi: asaldatu, onetik atera**jalgi:** irten**oroit izan:** gogoratu**usantza:** ohitura**behatu:** entzun

10. JELKALDIA

Errege-erreginek Domingo eta haren emaztea eta semea hartzen dituzte.

Luis XVI.a erregea**73**

Ez griñatü etxeakoak,
Pierra züen semea
Dago gure jauregian,
ontsa düzü tratatüa.

Maria Antoineta erregina**74**

Bere botz ederrarekin,
bazterrak dütü xarmatzen
Pariseko saluetan,
arrakasta eder biltzen.

Pierra Garat**75**

Beti danik kantatzea,
izan da ene ametsa
Erregearen kortean,
nüzü errezebitüa.

Domingo Garat**76**

Badik orai urte zonbait,
ez girela kürützatzen
Bizi harroa gisala,
dük Parisen eramaiten.

Pantxika**77**

Oi ene seme maitea,
aspaldian ez ikusia
Uste nüan galdü hiala,
etxekeen amodioa.

Luis XVI.a erregea**78**

Nik boterea düdano,
Pierra dizüt zaintüko
Holako ganoarekin,
korteia alageratüko.

Maria Antoineta erregina**79**

Parise hiri handian,
badikezü aisezia
Berehala aberasteko,
ükenen dizü parada.

Domingo Garat**80**

Denbora ari dük kanbiatzen,
bazterrak oro nahasten
Otoi ihes egin ezak,
hebertik lehen bai lehen.

10. JELKALDIA**Luis XVI.a erregea****73**

Ez grinatu etxeakoak.
Pierra zuen semea
dago gure jauregian.
Ontsa da tratatua.

Maria Antoineta erregina**74**

Bere boz ederrarekin
bazterrak ditu xarmatzen.
Pariseko saloietan
arrakasta eder biltzen.

Pierra Garat**75**

Betidanik kantatzea
izan da ene ametsa.
Erregearen kortean
naiz errezebitua.

Domingo Garat**76**

Badik orain urte zenbait
ez garela gurutzatzen.
Bizi harroa gisara
duk Parisen eramaten.

Pantxika**77**

Oi, ene seme maitea,
aspaldian ez ikusia.
Uste nuen galdu huela
etxekeen amodioa.

Luis XVI.a erregea**78**

Nik boterea dudano
Pierra dut zainduko.
Honelako ganoarekin
gortea alegeratuko.

Maria Antoineta erregina**79**

Paris hiri handian
baduke aiseria.
Berehala aberasteko,
ukanen du parada.

Domingo Garat**80**

Denbora ari duk kanbiatzen,
bazterrak oro nahasten.
Otoi, ihes egin ezak
hemendik lehenbailehen.

griñatu: arduratu**dudano:** dudan arte**gano:** gaitasun, trebezia**duke:** izango du
aiseria: erosotasun**otoi:** mesedez

KANTA V
Bizi lurra maite

e1

Zü ene aita gogorra
 Sekülan ez deitadazüt
 Nahi izan ez parkatü
 Oi ene bühürrikeria
 Zertako ez nüan hartü
 Zük erakatsi bidea.

e2

Sortzetik nüan dohaina
 Plazerrekin dizüt lantü
 Pariseko Saloietan
 Ene fama barreatü
 Erregiñak berak dizü
 Ene botza amiratü.

e3

Bihar zertaz egina den
 Ez dit batere pentsatzen
 Egün düdan arrakastak
 Mentüraz ez dü iraünen
 Üken düztadan plazerrak
 Orai beitätüt gozatzen.

KANTA V
Bizi lurra maite

e1

Zu, ene aita gogorra,
 sekulan ez didazu
 nahi izan, ez, barkatu,
 oi, ene bihurrikeria.
 Zertako ez nuen hartu
 zuk irakatsi bidea?

e2

Sortzetik nuen dohaina
 plazerekin dut landu.
 Pariseko saloietan
 ene fama barreatu.
 Erreginak berak du
 ene boza amiratu.

e3

Bihar zertaz egina den
 ez dut batere pentsatzen.
 Egun dudan arrakastak
 menturaz ez du iraunen.
 Ukan ditudan plazerrak
 orain ditut gozatzen.

zertako: zergatik

amiratu: miretsi

11. JELKALDIA

Frantziako eta Euskal Herriko ordezkariak harremanetan sartzen dira.

Noaillesko bizkondea**81**

Orai aski ele auher,
heben badügu erranik
Biltzar huntan dirateke,
xede handiak hartürrik.

Josep Garat**82**

Zer egitate süharra,
jüstiziaren txerkatzea
Eüskaldünak bide hortan,
ados izanen beitira.

Aiguillongo dukea**83**

Gaur aitzinaraziko düüt,
abantailen elkitzea
Izanik bakotxarenak,
eta algarrekilakoak.

Domingo Garat**84**

Popülüa karriketan,
miseria gorrian da
Denen artean behar da,
partekatü hontarzüna.

Üzesko apezpikua**85**

Elizak ere bere ustez,
xede argia hartzen dü
Haren hontarzünak oro,
Herriari üzten dütü.

Domingo Garat**86**

Biltzar huntarik uste dü,
lege hon sortüko dela
Eüskal Herriarentzat ere,
eragin lüketenak.

Zuberoako ordezkaria**87**

Sobera hürün joan gabe,
ikert ditzagün beharrak
Joan nadin Xüberoala,
erran horien ikertzera.

Diturbide**88**

Lapurdiko Biltzarraren,
berri deizüet ekarten
Hunek goratik zütüe,
osoki denek gaitzesten.

11. JELKALDIA**Noaillesko bizkondea****81**

Orain aski ele alfer
hemen badugu erranik.
Biltzar honetan dirateke
xede handiak harturik.

Josep Garat**82**

Zer egitate suharra
justiziaren xerkatzea.
Euskaldunak bide horretan
ados izanen dira.

Aiguillongo dukea**83**

Gaur aitzinaraziko dut
abantailen ilkitzea,
izanik bakoitzarenak
eta elkarrekikoak.

Domingo Garat**84**

Populua karriketan
miseria gorrian da.
Denen artean behar da
partekatu ondasuna.

Üzesko apezpikua**85**

Elizak ere, bere ustez,
xede argia hartzen du.
Haren ondasunak oro
herriari uzten dizkio.

Domingo Garat**86**

Biltzar honetarik uste dut
lege on sortuko dela,
Euskal Herriarentzat ere
eragin luketenak.

Zuberoako ordezkaria**87**

Sobera urrun joan gabe
iker ditzagun beharrak.
Joan nadin Zuberoara
erran horien ikertzera.

Diturbide**88**

Lapurdiko Biltzarraren
berri dizuet ekartzen.
Honek goratik zaituzte
osoki denak gaitzesten.

dirateke: izango dira**xerkatu:** bilatu**ilki:** kendu

89

Züek Garat bi anaiak,
Parise jarraikiz hola
Saldükeria bat bezala,
zidee gütarik ikusia.

89

Zuek, Garat bi anaiak,
Parisi jarraikiz honela,
saldukeria bat bezala
zarete gutarik ikusiak.

KANTA VI
Agorrilaren laueko gaua

f1

Agorrilaren laueko gaia
 Euskal Herriaren trajedia
 Ordüan dütü gure herriak
 Galdü hor sekülakoz züzenak.

f2

Frantziako iraultza ertzoak
 Nahiz aldatü lege güziak
 Urtuki dütü Euskal Biltzarrak
 Ükatüz oso haien üsantxak.

f3

Adio gure askatarzüna
 Hori frantses ordezkarien lana
 Mente'ta mentez irabazia
 Aldi bakotx zankopilatüa.

f4

Ez gira hortan eküratüko
 Borroka dügü arrahartüko
 Geroarentzat egin bidea
 Gure haurrentzat Euskal Herria.

KANTA VI
Agorrilaren laueko gaua

f1

Agorrilaren lauko gaua
 Euskal Herriaren tragedia.
 Orduan ditu gure herriak
 galdu hor sekulakoz zuzenak.

f2

Frantziako Iraultza ertzoak
 nahiz aldatu lege guztiak
 aurtiki ditu euskal biltzarrak,
 ukatuz oso haien usantzak.

f3

Adio gure askatasuna.
 Hori frantses ordezkarien lana.
 Mende eta mendez irabazia
 aldi bakoitz zangopilatua.

f4

Ez gara horretan ekuratuko.
 Borroka dugu arrahartuko.
 Geroarentzat egin bidea,
 gure haurrentzat Euskal Herria.

agorril: abuztu

zuzen: eskubide

ertzo: zoro

aurtiki: bazterrera jaurti

usantza: ohitura

aldi bakoitz: une bakarrean

zangopilatu: oinpean erabili

ekuratu: gelditu

arrahartu: berriro hartu

12. JELKALDIA

Frantziako ordezkariak departamentuak bereizi nahi dituzte.

Mirabeau**90**

Hasi lanaren bürützeko,
behar günüke bozkatü
Lege bat Frantziarentzat,
lürraldeka zatikatüz.

Domingo Garat**91**

Hortan kasü emazüe,
ez nola nahi zerraka
Frantziako herrialdeek,
düe berezitarzüna.

Target**92**

Batzordeak manatürrik,
egin dügü ikerketa
Jüntatzen ahal litaizke,
Biarnes'ta eüskaldüna.

Domingo Garat**93**

Hein bat gira etsitürrik,
hori ez da gure alde
Eüskal Herriko eremüek,
berex ezarri behar düe.

Josep Garat**94**

Hasteko bi popülüek,
ez düe algar ulertzen
Ber hizkuntza ez izanez,
aisa dirade baztertzen.

Musde Villontreix de Faye**95**

Biarnes'ta eüskaldünek,
mintzaje ez beragatik
Harremanetan dirade,
hortan ez düe nekerik.

96

Bestalde ezagützen dü,
mintzaje orotakoa
Denentzat balio dena,
hots amodioarena.

Domingo Garat**97**

Holako hitzak entzünik,
nahiago niz partitü
Zürekilan ezin beita,
deüs ere xüxenik moldatü.

12. JELKALDIA**Mirabeau****90**

Hasi lanaren burutzeko
behar genuke bozkatu
lege bat Frantziarentzat,
lürraldeka zatikatuz.

Domingo Garat**91**

Horretan kasu emazue,
ez nolana zerraka.
Frantziako herrialdeek
dute berezitasuna.

Target**92**

Batzordeak manaturik,
egin dugu ikerketa.
Juntatzen ahal litezke
biarnes eta euskalduna.

Domingo Garat**93**

Hein bat gara etsiturik.
Hori ez da gure alde.
Euskal Herriko eremuek
bereiz ezarri behar dute.

Josep Garat**94**

Hasteko, bi populuek
ez dute elkar ulertzen.
Ber hizkuntza ez izanez,
aise dira baztertzen.

Musde Villontreix de Faye**95**

Biarnes eta euskaldunak
mintzaira ez beragatik
harremanetan dira.
Horretan ez dute nekerik.

96

Bestalde, ezagutzen dut
mintzaira orotakoa,
denentzat balio duena,
hots, amodioarena.

Domingo Garat**97**

Horrelako hitzak entzunik,
nahiago naiz partitu,
zurekin ezin baita
deus ere zuzenik moldatu.

zerrakatu: zerraz ebaki**manatu:** agindu

3. JELKALDIA

Garat anaiak, etsiturik.

Domingo Garat**98**

Zer idei' zentzögabea,
Parisetik jin zaiküna
Bi popülü ezbardinen,
gogoz kuntre alkartzea
Ez düe ber mintzajea,
gaitz date arrolatzea.

Josep Garat**99**

Hori beno okerrago,
ez beigünean pentsatüko
Eüskaldün 'ta Biarnesak,
ber lürraldean biziko
Lüza gabe ene ustez,
aharra zaikü piztuko.

Domingo Garat**100**

Lapurdi'ta Nafarroak,
bai'ta ere Xüberoak
Haritz zaharraren pean,
eraiki gure legeak
Ez dügü onhartzen ahal,
Parisek hartü xedeak.

Josep Garat**101**

Eüskaldünak ez dü batere,
herrarik Biarnesentako
Heiek ere hizkuntza bat'ta
eremü bat zäintzeko
Aldiz gure lürraldea,
gihaurek dügü gidatüko.

Domingo Garat**102**

Frantziari üdüri zaio
gü ere barne girela
Bena gü gira eüskaldün,
azkarki entzün dezala
Urtez urte, mentez mente,
oihüstatüko dügüla.

Josep eta Domingo Garat**103**

Okzitandar'ta Bretaindar,
Korsikar eta Eüskaldün
Parisek nahi güntüke,
oro ber zaküan sartü
Bakotxaren ondarea,
behin betikoz ükatü.

3. JELKALDIA**Domingo Garat****98**

Zer ideia zentzugabea
Parisetik jin zaiguna.
Bi populu ezberdinen
gogoz kontra elkartzea.
Ez dute ber mintzaira.
Gaitz dateke arrolatzea.

Josep Garat**99**

Hori baino okerrago,
ez baikenuen pentsatuko
euskaldun eta biarnesak
ber lurraldean biziko.
Luze gabe, ene ustez,
aharra zaigu piztuko.

Domingo Garat**100**

Lapurdi eta Nafarroak,
bai eta ere Zuberoak,
haritz zaharraren pean
eraiki gure legeak.
Ez dugu onartzen ahal
Parisek hartu xedeak.

Josep Garat**101**

Euskaldunak ez du batere
herrarik biarnesendako.
Haiek ere hizkuntza bat eta
eremu bat zäintzeko.
Aldiz, gure lurraldea,
guhaurek dugu gidatuko.

Domingo Garat**102**

Frantziari irudi zaio
gu ere barne garela.
Baina gu gara euskaldun,
azkarki entzun dezala.
Urtez urte, mendez mende,
oihuztatuko dugula.

Josep eta Domingo Garat**103**

Okzitaniar eta bretainiar,
korsikar eta euskaldun.
Parisek nahi gintuzke
oro ber zakuan sartu.
Bakoitzaren ondarea
behin betikoz ukatu.

dateke: izango da**arrolatu:**

lagun izan, konpondu

aharra: liskar**xede:** asmo**herra:** gorroto**guhaur:** geu**oihuztatu:** oihukatu

104

Hizkuntzen hanixtarzūna,
ohidūra bereziak
Zerentako ez ezagūt,
gure ezbardintarzūnak
Aberasgarri lizate,
denen errespetatzeak.

104

Hizkuntzen aniztasuna,
ohitura bereziak.
Zerendako ez ezagut
gure ezbardintasunak?
Aberasgarri litzateke
denen errespetatzeak.

zerendako: zergatik

14. JELKALDIA

Emakumeek ere parte hartzen dute iraultzan.

Olympe de Gouges eta Claire Lacombe 105

Gizonentzat boterea
guretako lan xehea
Haiek egiten legeak,
guk aldiz haien nahia
Emazteek zentako,
gizona ez balio?

Errepika 106

Gure izen gaintikoa,
galtzerdi egileak,
Gizonek trüfatüa,
Nahi libertatea!

Pauline Leon eta De Condorcet andrea 107

Salerospen egiteko,
ez dügü egün ahalik
Emazten eskübideak,
batere errespetatüak
Erabakietan,
aise baztertüak.

Errepika**Roland andrea eta Marie Patras 108**

Egüngo irauzlariak,
ehots handi karriketariak
Andere borrokalariak,
gizoner jünta gitian
Hola güdükatüz,
indar berri hartüz.

Errepika**Joseba Takil eta Maria Ezkobiet 109**

Noiz date gure aldia,
bozkatzeko deretxoa?
Zentako ez neskatilek,
bere anaiek bezala
Joan eskolarat,
hartü lanbide bat?

Errepika**14. JELKALDIA****Olympe de Gouges eta Claire Lacombe 105**

Gizonentzat boterea,
guretako lan xehea.
Haiek egiten legeak,
guk, aldiz, haien nahia.
Emazteek zendako
gizona ez balio?

Errepika 106

Gure izen gaindikoa:
galtzerdi egileak.
Gizonek trufatuta,
nahi libertatea!

Pauline Leon eta De Condorcet andrea 107

Salerospen egiteko
ez dugu egun ahalik.
Emazteen eskubideak,
batere ez errespetatuak.
Erabakietan,
aise baztertüak.

Errepika**Roland andrea eta Marie Patras 108**

Egungo iraultzaileak
herots handi karriketariak.
Andre borrokalariak
gizonei junta gaitezen,
horrela gudukatuz
indar berri hartuz.

Errepika**Joseba Takil eta Maria Ezkobiet 109**

Noiz dateke gure aldia
bozkatzeko eskubidea?
Zendako ez neskatilek,
bere anaiek bezala,
joan eskolarat,
hartu lanbide bat?

Errepika

zendako: zergatik

izan gaindiko: gaitzizen

herots: zarata

dateke: izango da

Carmen eta Maiana**110**

Gure bizitze tristea,
jakitaterik gabea
Beti hola besteen peko,
zer date gure geroa?
Orain aski dügü,
bürüa apaltü.

Errepika**Oihana eta Gexine****111**

Parisen egin legeak,
batere ez gustükoak,
Gük nahiago güntüke,
zinez Eüskal Herrikoak
Haiek bazter ützi,
batere ez sinetsi.

Errepika**Carmen eta Maiana****110**

Gure bizitza tristea,
jakitaterik gabea.
Beti honela, besteen peko.
Zer dateke gure geroa?
Orain aski dugu
burua apaldu.

Errepika**Oihana eta Gexine****111**

Parisen egin legeak
batere ez gustukoak.
Guk nahiago genituzke
zinez Euskal Herrikoak.
Haiek bazter utzi,
batere ez sinetsi.

Errepika

15. JELKALDIA

Domingo Uztaritzera itzultzen da.

KANTA VII**g1**

Adio Parise, hiri nahasia
Pena handirik gabe, nik haüt egün üzten
Jüstizia gosez, beterik bürüa
Dolü gütirekin, gibel nük ützültzen.

g2

Ez diat entzün nahi, herrilat heltzean
Saldü düdala nik, Eüskal popülüa
Haier oldartzeko, ttipixe indarra
Segür banüalarik, nahia gogoan.

g3

Agur Üztaritze, sor lekü maitea
Zer boztarioa nitan, hunarat etortzea
Dütüdan urteak, zuri eskaintzeko
Zütaz babestürrik, ontsa bizitzeko.

Martin Isidore

112
Parise hiri nausia,
egün alderat ützirik
Zurekin lan egitea,
ez dügü segür düdarik.

Domingo Garat

113
Zer atsegin enetako,
zurekila izatea
Herriarren ikusteak,
alageratzen bizia.

Diturbide

114
Zure jakitate zorrotza,
orai dügü baliatüko
Iraultza hunek behar lüke,
jüstizia denentako.

Domingo Garat

115
Pariseko nahasketaz,
oso nintzan etsitüa
Herriaren hobetzea,
hori date ene xedea.

Domingo Garat

116
Bihotzetik esker mila,
saldoan jinik hunarat
Parisen aski egonik,
jin nüzü sorleküalat.

15. JELKALDIA**KANTA VII****g1**

Adio Paris, hiri nahasia,
pena handirik gabe nik haut egun uzten.
Justizia gosez beterik burua,
dolu gutxirekin, gibel nauk itzultzen.

g2

Ez diat entzun nahi herrirat heltzean
saldu dudala nik euskal populua.
Haiei oldartzeko ttipixe indarra,
segur banuelarik nahia gogoan.

g3

Agur, Uztaritze, sorleku maitea.
Zer bozkarioa nitan honat etortzea.
Ditudan urteak, zuri eskaintzeko.
Zutaz babesturik, ontsa bizitzeko.

Martin Isidore

112
Paris hiri nagusia
egun alderat utzirik,
zurekin lan egitea
ez dugu segur dudarik.

Domingo Garat

113
Zer atsegin enetako
zurekin izatea.
Herriarren ikusteak
alageratzen bizia.

Diturbide

114
Zure jakitate zorrotza
orain dugu baliatuko.
Iraultza honek behar luke
justizia denendako.

Domingo Garat

115
Pariseko nahasketaz
oso nintzen etsia.
Herriaren hobetzea,
hori dateke ene xedea.

Domingo Garat

116
Bihotzetik esker mila,
saldoan jinik honat.
Parisen aski egonik,
jin naiz sorlekurat.

gibel: atzera

ttipixe:
ttipi samar, txiki samar

boztario: poz

alageratu: poztu

dateke: izango da

saldo: talde

jin: etorri

16. JELKALDIA

Pariseko ordezkariak eta Domingorekin
eta beraren lagunekin borrokan.

Pascal-Thomas Fourcade**117**

Badik orai egün zonbait,
Garat goaitatzen haütala
Lege nausien erranak,
arinki hartzen dütükala.

Domingo Garat**118**

Azkenean ohartzen nük,
salazale bat hizala
Saldoan zide hunarat,
jinik ene bahitzera.

Monestier du Puy de Dôme**119**

Iraultzari kontre joanez,
gure lana dük trabatzen
Holaz hari ez sinestez,
gure etsai hiz agertzen.

Domingo Garat**120**

Frantses izan beno lehen,
sortzez nündüan eüskaldün
Ez egürük eneganik,
izan nadin züen lagün.

Pinet**121**

Guri behar dük jarraiki,
aski badiagü entzünik
Kapitaina ezar ezak,
Garat jauna zerratürrik.

16. JELKALDIA**Pascal-Thomas Fourcade****117**

Badik orain egun zenbait,
Garat, goaitatzen haudala,
lege nagusien erranak
arinki hartzen dituala.

Domingo Garat**118**

Azkenean ohartzen nauk
salatzaile bat haizela.
Saldoan zarete honat
jinik ene bahitzera.

Monestier du Puy de Dôme**119**

Iraultzari kontra joanez,
gure lana duk trabatzen.
Horrela hari ez sinestez,
gure etsai haiz agertzen.

Domingo Garat**120**

Frantses izan baino lehen,
sortzez ninduan euskaldun.
Ez iguruki enegandik
izan nadin zuen lagun.

Pinet**121**

Guri behar diguk jarraiki,
aski badiagu entzunik.
Kapitaina, ezar ezak
Garat jauna zerraturik.

goaitatu: itxaron**jin:** etorri**iguriki:** espero izan

17. JELKALDIA

Domingo Garatek presondegitik ihes egiten du.

Pette artzaina**122**

Domingo norat ezkapu hiz,
aigü Zugarramurdirat
Gure etxola txarrean,
badükek han aixolbea.

Domingo artzaina**123**

Frantses jaunkillot horiek,
hunarat jiten badira
Ontsa senditüko düe,
zer den artzainen makila.

Johañe artzaina**124**

Holako bortü ederrak,
bi aldetarat zabalik
Ezarten dütü bi herri,
oso algarretatürrik.

Battitta artzaina**125**

Eskoletako jargiak,
ez dütügü ez higatü
Salbü libre bizitzia,
gük dügü heben haitatü.

Kaiet artzaina**126**

Artzainen anaitarzuna,
beita egündanokua
Iparan ala Hegoan,
gira ber odolekua.

Denek kanta**126**

Libertiaren hatsak,
bortüan azkar buhatzen
Algarrekin girelarik,
sekülan gü ez lotsatzen.

17. JELKALDIA**Pette artzaina****122**

Domingo, norat eskapatu haiz?
Haigu Zugarramurdirat.
Gure etxola txarrean
badükek han aizolbea.

Domingo artzaina**123**

Frantses jaunkillot horiek
honat jiten badira,
ontsa sentituko dute
zer den artzainen makila.

Johañe artzaina**124**

Honelako bortu ederrak,
bi aldetarat zabalik,
ezarten ditu bi herri,
oso elkarretaturik.

Battitta artzaina**125**

Eskoletako jargiak
ez ditugu, ez, higatu.
Salbu libre bizitza
guk dugu hemen hautatu.

Kaiet artzaina**126**

Artzainen anaitasuna
baita egundainokoa,
Iparrean ala Hegoan
gara ber odolekoak.

Denek kanta**126**

Libertatearen hatsak
bortuan azkar buhatzen.
Elkarrekin garelarik,
sekulan gü ez lotsatzen.

haigu: hator
dukek: izango duk
aizolbe: babes

jaunkillot: jauntxo

bortu: mendi

jargi: eserleku
higatu: erabileraz hondatu

egundaino: gaur arte

buhatu: putz egin

lotsatu: beldurtu

KANTA VIII
Artzainen kantua

h1

Zer omena guretzat, errezebitzea
 Gure etxola zaharrear, Domingo handia
 Müga hain aspalditik, dü zure izenak
 Gain gaisetik igaran, Garaten familiak.

h2

Lehenik zure aitak, bedezi zelarik
 Horra zen gogo honez, ontsa izerturik
 Erien artatzera, zaküa bizkarrean
 Gaüz ala egünaz, hari zaion bardin.

Errepika

Egün batez jinen da, heben ere bakea
 Eüskaldünen artean, algarretaratzea
 Ordüan müga hori, oso idekia
 Gure haurrentzat date, bat Eüskal Herria.

h3

Heben düzü ükenen egiazko pausüa
 Hain lüzaz zü egonik, hiri handietan,
 Zinezko zühürtzea, segür da bortüan
 Goza ezazü gurekin, hor aire sanoa.

h4

Frantses iraultza horrek bazterrak nahasi
 Gure artean ere, aharra ezarri
 Ez beigünüan lehen, mügari so egiten
 Bena bai gogo honez, algar süstengatzen.

Errepika

KANTA VIII
Artzainen kantua

h1

Zer omena guretzat errezebitzea
 gure etxola zaharrear Domingo handia.
 Muga hain aspalditik du zure izenak
 gain-gaisetik iragan, Garaten familiak.

h2

Lehenik, zure aitak, bedezi zelarik.
 Horra zen gogo onez, ontsa izerditurik
 erien artatzera, zakua bizkarrean.
 Gauaz ala egunaz, hari zitzaion berdin.

Errepika

Egun batez jinen da honat ere bakea.
 Euskaldunen artean elkarretaratzea.
 Orduan, muga hori oso irekia.
 Gure haurrentzat dateke bat Euskal Herria.

h3

Hemen duzu ukanen egiazko pausua,
 hain luzaz zu egonik hiri handietan.
 Zinezko zuhurtzea segur da bortuan.
 Goza ezazu gurekin hor aire sanoa.

h4

Frantses iraultza horrek bazterrak nahasi.
 Gure artean ere, aharra ezarri.
 Ez baikenion lehen mugari so egiten,
 baina bai gogo onez elkar sostengatzen.

Errepika

omen: ohore

bedezi: sendagile
horra izan: etorri
eri: gaixo

dateke: izango da

pausu: atsedan

bortu: mendi

aharra: liskar

18. JELKALDIA

Frantzia eta Espainia gerran dira.

La Tour d'Auvergne**127**

Espainiako armada,
Larrüne malda igaranik
Bultzatü dütü güziak,
Santa Barbako lepotik.

Moncey jenerala**128**

Züek Eüskaldün fierrak,
Sara ala Üztariztarrak
Otoi ürgaizt gitzazüe,
ohiltzen Kastianoak!

Josep Garat**129**

Eüskal Herriaren lagüntza,
orai beharra düzüe
Salbü ondoko egünetan,
gütaz oritüko zidee.

130

Badakizüe segurki,
müga hunen bestaldean
Ber odoleko jenteak,
bizi direla Espainan.

Pinet**131**

Nik hitzemaiten deizüet,
ez zütüegüla ahatzeko
Frantses armada lagüntüz,
gerlaren irabazteko.

El Manchego**132**

El Gobierno Español,
con La Francia de acuerdo está
A Guipuzcoa dar libertad,
venga vamos ni en sueños.

133

Malditos vascos rebeldes,
las armas siempre en mano.
Al corredor de la muerte,
no nos queda duda alguna.

18. JELKALDIA**La Tour d'Auvergne****127**

Espainiako armada
Larhun malda iraganik.
Bultzatu ditu guziak
Santa Barbarako lepotik.

Moncey jenerala**128**

Zuek, euskaldun fierrak,
saratar ala uztariztarrak,
otoi, urgatz gaitzazue
ohiltzen gaztelarrak!

Josep Garat**129**

Euskal Herriaren laguntza
orain beharra duzue.
Salbu ondoko egunetan
gutaz oroituko zarete.

130

Badakizue segurki
muga honen bestaldean
ber odoleko jendeak
bizi direla Espainan.

Pinet**131**

Nik hitzematen dizuet
ez zaituztegula ahantziko
Frantses armada lagunduz
gerraren irabazteko.

El Manchego**132**

El Gobierno Español
con La Francia de acuerdo está.
A Gipuzkoa dar libertad,
venga vamos, ni en sueños.

133

Malditos vascos rebeldes,
las armas siempre en mano.
Al corredor de la muerte,
no nos queda duda alguna.

fier: adoretzu

urgatzi: lagundu

ohildu: egotzi, bota

19. JELKALDIA

Frantsesek Etxabe eta Romero euskal gudulariak bahitzen eta hilarazten dituzte.

Josep Garat**134**

Frantses soldadoek düe,
Eüskaldünek lagüntürük
Garraitü Kastianoak,
haizatüz Gipuzkoatik.

Etxabe**135**

Orai dügü mementoa,
Gipuzkoaz jabetzeko
Gotorki galtatzen dügü,
berebergoa hunentako.

Romero**136**

Getarian jüntatürük,
Biltzarreko kideekilan
Eskatzen dügü goratik,
Espainiatik ken gitian.

Josep Garat**137**

Eskualdün güdükariek,
lagüntüz Frantses armad
Orai egürikatzen düe,
zor düzien ordaria.

Cavaignac**138**

Lotsa niz orano ere,
ari zidela zalexka
Ez beitzait batere üdüri,
Frantsesen xedeetan dela.

Josep Garat**139**

Hitza jaten düan gizonak,
mespretxüa dü merexi
Hitzeman berebergoa,
honetsi Gipuzkoari.

Pinet**140**

Ados niz Espainiarekin,
Eüskadirik ez da izanen
Ehoaraz ezatzüe,
ez ditian bizi heben.

19. JELKALDIA**Josep Garat****134**

Frantses soldaduek dituzte,
euskaldunek lagundurik,
garaitu gaztelarrak,
haizatuz Gipuzkoatik.

Etxabe**135**

Orain dugu mementoa
Gipuzkoaz jabetzeko.
Gotorki galdatzen dugu
berebergoa honendako.

Romero**136**

Getarian juntaturik
biltzarreko kideekin,
eskatzen dugu goratik
Espainiatik ken gaitezen.

Josep Garat**137**

Eskualdun gudulariek
lagunduz Frantses armada,
orain igurikitzen dute
zor diezuen ordaria.

Cavaignac**138**

Lotsa naiz oraino ere
ari zaretela zaluxka,
ez baitzait batere irudi
frantsesen xedeetan dela.

Josep Garat**139**

Hitza jaten duen gizonak
mespretxua du merezi.
Hitzeman berebergoa
onetsi Gipuzkoari.

Pinet**140**

Ados naiz Espainiarekin;
Euskadirik ez da izanen.
Eroaraz itzazue,
ez daitezen bizi hemen.

haizatu: uxatu, ihes eragin**galdatu:** eskatu
berebergo: askatasun**goratik:** ozenki**iguriki:** espero izan
ordari: ordain**lotsa:** beldur
oraino: oraindino
zalu: arin**onetsi:** onartu**eroarazi:** hiltzeko agindu

KANTA IX
Etxabe eta Romero

i1

Hola da urrentzen, Euskaldunen ametsa
 Frantzia eta Espainia, urdin gerla gorrian
 Ados jarten dira, gure sartzeko zakuan
 Noiz dateke arren, libre gure Herria.

i2

Gük günian sinetsi, Jaunttoen erraneri
 Hitzak janik ere, ez dūe ahalkerik
 Nor da atzamana, indar gabeturik
 Nork ote kanbia, ohidura zahar hori?

i3

Bihar bat eginez, Ipar eta Hegoa
 Hautatuz nausi bat, bien buruzagia
 Algarri estekiz, denek gure ahala
 Horier erakustez, zazpiak bat girela.

KANTA IX
Etxabe eta Romero

i1

Honela da urrentzen euskaldunen ametsa.
 Frantzia eta Espainia, urdin gerra gorrian.
 Ados jartzen dira gure sartzeko zakuan.
 Noiz dateke, arren, libre gure herria.

i2

Guk genien sinetsi jaunttoen erranei.
 Hitzak janik ere, ez dute ahalkerik.
 Nor da atzemana indargabeturik?
 Nork ote kanbia ohitura zahar hori?

i3

Bihar bat eginez Ipar eta Hegoa,
 hautatuz nagusi bat bien buruzagia.
 Elkarri estekatuz denek gure ahala,
 horiei erakutsiz zazpiak bat garela.

urrendu: amaitu

dateke: izango da

ahalke: lotsa

estekatu: lotu

20. JELKALDIA

4.000 herritar etxetik atera eta Landetara bidaltzen dituzte.

St-Simongo dukea**141**

Oi berri izigarria,
zonbaiten jokamoldea
Berrogei Itsasuarrek,
ihes egin Espainiala.

Gizon saratar bat**142**

Espainia deitzen düzüe,
züek mügaz bestaldea
Guretzat ez holakorik,
aüzoan dügü anaia.

Pinet**143**

Betik neizüen erraiten,
traidore hütsak zirela
Mügatar debrü horietan,
otoi ez sekülan fida.

Cavaignac**144**

Zanko bat alderdi huntan,
mügaz gaintian bestea
Salbü beti prest dirade,
jauzteko gure gaineala.

Gizon itsasuar bat**145**

Hainbestetan zapatürrik,
beti azkarraren peko
Züek aldiz betitik prest,
kasabetaren ützültzeko.

Pinet**146**

Orai jinik da orena,
Eüskal Herritik joatea
Hitza jan deiküzüelakoz,
sekülakoz ohiltzea.

20. JELKALDIA**St-Simongo dukea****141**

Oi, berri izugarria
zenbaiten jokamoldea.
Berrogei itsasuarrek
ihes egin Espainiara.

Gizon saratar bat**142**

Espainia deitzen duzue
zuek mugaz bestaldea.
Guretzat ez horrelakorik;
auzoan dugu anaia.

Pinet**143**

Beti nizuen erraten
traidore hutsak zirela.
Mugatar debru horietan,
otoi, ez sekulan fida.

Cavaignac**144**

Zango bat alderdi honetan,
mugaz gaindi bestea.
Salbu beti prest dira
jauzteko gure gainera.

Gizon itsasuar bat**145**

Hainbestetan zapaldurik
beti azkarraren peko.
Zuek, aldiz, betitik prest
jakaren itzultzeko.

Pinet**146**

Orain jinik da orena
Euskal Herritik joatea.
Hitza jan diguzuelakoz,
sekulakoz ohiltzea.

azkar: indartsu

jaka itzuli:
jaka itzulietara jantzi

ohildu: egotzi, bota

KANTA X
Erbesteratuen kantua

j1
 Euskaldüna zoritxarrez,
 herritik kanpo igorria
 Lau milaz goiti herritar:
 haur, xahar, gizon, emazte,
 Saratar, Itsasuar,
 herriko alaba, seme,
 Zer gaizkiz züen ogendant?
 Euskaldüna izateaz.

j2
 Landesetako bidea,
 hoinez lohian itoak
 Flaküak ziren erortzen,
 egürükitez herioa
 Besteak aitzina ebiltzen,
 süstengiz bata bestea
 Mila herritarrek züten,
 han galdü beren bizia.

j3
 Popülü herri gabea,
 Palestindarrak üdüri
 Bi aldetarik lehertüa,
 orotarik haüzatüa
 Kürdoren gisa girade,
 beti besteek manatüa
 Üsü besten gomendüan,
 ezeztatüz gure lürra.

j4
 Malür ororen artetik,
 etxeki gogor bihotzak
 Ez ditean debalde izan,
 egünko sofrikarioak
 Presta dezagün haurrentzat,
 gero ahalaz hobea
 Haiek bederen goza dezen
 guri ebatsi etxea.

KANTA X
Erbesteratuen kantua

j1
 Euskalduna, zoritxarrez,
 herritik kanpo igorria.
 Lau milaz goiti herritar:
 haur, zahar, gizon, emazte,
 saratar, itsasuar,
 herriko alaba, seme.
 Zer gaizkiz zuen hobendun?
 Euskalduna izateaz.

j2
 Landesetako bidea
 oinez, lohian itoak.
 Flakoak ziren erortzen,
 igurikitzez herioa.
 Besteak aitzina ibiltzen,
 sostengatuz bata bestea.
 Mila herritarrek zuten
 han galdu beren bizia.

j3
 Populu herri gabea,
 palestinarrek irudi.
 Bi aldetarik lehertua,
 orotarik haizatua.
 Kurduen gisa gara,
 beti besteek manatua.
 Usu besteen gomendioan,
 ezeztatuz gure lurra.

j4
 Malur ororen artetik,
 atxiki gogor bihotzak,
 ez daitezen debalde izan
 egungo sufrikarioak.
 Presta dezagun haurrentzat
 gero ahalaz hobea.
 Haiek bederen goza dezaten
 guri ebatsi etxea.

hobendun: errudun

flako: ahul
iguriki: itxaron
aitzina: aurrera

haizatu: uxatu, ihes eragin

manatu: agindu
usu: sarritan
gomendioan: ardurapean

malur: zorigaitz

ebatsi: ostu, lapurtu

21. JELKALDIA

Guardiek Maddalen mugan atxilotu eta hiltzen dute.

Saratar emakume bat**147**

Kürützatü dit goiz huntan,
hantxe Berako bidean
Maddalen Larralde hora,
kantüz eta otoitzean.

Maddalenen ama**148**

Frantses guardiek zütüe,
oi neskatila tristea
Galtaketatüko laster,
otoi ez erran egia.

Pinet**149**

Nontik horra hiz neskatxa,
zertan hintzan arren Beran
Müga hau düna igaran,
laster guri egia erran.

Maddalen**150**

Egia erraitez badakit,
bizia zaütala llabürtzen
sinpleki aitortüko dü,
Beran nintzan kobesatzen.

Pinet**151**

Neska gazte, lili hauskor,
ez zira herioaren lotsa
Ez erran Beran zinela,
gezür zerbait guri pentsa.

Maddalen**152**

Ezin dü, besterik sala,
arima zikint nezake
Ogengabe nahiago niz,
bizia galdürük ere.

21. JELKALDIA**Saratar emakume bat****147**

Gurutzatu dut goiz honetan,
hantxe Berako bidean,
Maddalen Larralde hura,
kantuz eta otoitzean.

Maddalenen ama**148**

Frantses guardiek zaituzte,
oi, neskatila tristea,
galdekatuko laster.
Otoi, ez erran egia.

Pinet**149**

Nondik horra haiz, neskatxa?
Zertan hintzan, arren. Beran?
Muga hau dun iragan?
Laster guri egia erran.

Maddalen**150**

Egia erratez badakit
bizia zaidala laburtzen.
Sinpleki aitortuko dut:
Beran nintzan konfesatzen.

Pinet**151**

Neska gazte, lili hauskor,
ez zara herioaren lotsa.
Ez erran Beran zinela.
Gezur zerbait guri pentsa.

Maddalen**152**

Ezin dut besterik sala,
arima zikin nezake.
Hobengabe nahiago naiz,
bizia galdurük ere.

horra izan: etorri**lotsa:** beldur**hobengabe:** errugabe

KANTA XI**Maddalenen azken kantua****k1**

Ene ama maitea, ez egin nigarrik
 Beste mündüalat noa, ez düt ez beldürrik
 Lür huntarako ützülia, janttoek llabürtürük
 Zelük'amaren besoak, eni zabaltürük

k2

Adio Saratarrerri, anai arreberi
 Herri aüzoan izan niz, müga ez ikusi
 Gizonen бүрүetan, segitüz herrari
 Nahiago düt pensatü amodioari

k3

Sara, Zugarramurdi, enetzat ber herri
 Nafar ala Lapurdi, beti hor Euskadi
 Hori guretzat date, oso gogozgarri
 Berexgoa ez dela, gizonen hazkürri

KANTA XI**Maddalenen azken kantua****k1**

Ene ama maitea, ez egin negarrik.
 Beste mundurat noa. Ez dut, ez, beldurrik.
 Lur honetarako itzulia janttoek laburturik,
 zeruko amaren besoak eni zabaldurik.

k2

Adio saratarrei, anai-arrebei.
 Herri auzoan izan naiz, muga ez ikusi.
 Gizonen buruetan segituz herrak,
 nahiago dut pensatu amodioari.

k3

Sara, Zugarramurdi, enetzat ber herri.
 Nafarroa ala Lapurdi, beti hor Euskadi.
 Hori guretzat dateke oso gogoetagarri;
 bereizgoa ez dela gizonen hazkurri.

herra: gorroto**bereizgo:** bereizte
hazkurri: elikagai

22. JELKALDIA

Saratar emakumeek beren haserrea erakusten dute.

Maria**153**

Ez gira gü etsitüko,
züen kontre oldartüko
Müga ez da guretako,
traba bat bilakatüko.

Carmen**154**

Ez badüzi'ezagützen,
gük dügün nahiküntea
Joka zite aintzinean,
ez badüzüe beldürrik.

Luixa**155**

Maddalen gure ahizpa,
züzengabe epaitürrik
Ihes hürrün joan laster,
kasü gure maleziari.

Joseba**156**

Zer ahalke gabekoak,
inozent baten hiltzeko
Zoazte zale Pariserat,
ez haboro ikusteko.

Kattalina**157**

Aupa Saratar jenteak,
haiza ditzagün etsaiak
Gurekin ere Lapurtarrak,
mügak airez jauzaraziak.

Oihana**158**

Arrotza nausi etxean,
gure lürrak suntsitürrik
Lot gitian borrokari,
aski dügü egarririk.

Ixabela**159**

Bizi gitean eüskaldünki,
Iparran ala Hegoan
Algar süstatüz fidelki,
denak fidantza osoan.

Maitena**160**

Lan eginez geroari,
azkartüz gure herria
Haurrentako izan dadin,
segürtatürrik geroa.

22. JELKALDIA**Maria****153**

Ez gara gu etsiko,
zuen kontra oldartuko.
Muga ez da guretako
traba bat bilakatuko.

Carmen**154**

Ez baduzue ezagutzen
guk dugun nahikundea,
joka zaitezte aitzinean
ez baduzue beldurrik.

Luixa**155**

Maddalen gure ahizpa
zuzengabe epaiturik,
ihes urrun joan laster.
Kasu gure maleziari.

Joseba**156**

Zer ahalke gabekoak
inozente baten hiltzeko.
Zoazte zalu Pariserat,
ez haboro ikusteko.

Kattalina**157**

Aupa, saratar jendeak,
haiza ditzagun etsaiak,
Gurekin ere lapurtarrak,
mugak airez jauzaraziak.

Oihana**158**

Arrotza nagusi etxean,
gure lurrak suntsiturik.
Lot gaitezen borrokari,
aski dugu egaririk.

Ixabela**159**

Bizi gaitezen euskaldunki
Iparran ala Hegoan.
Elkar sustatuz fidelki
denak fidantza osoan.

Maitena**160**

Lan eginez geroari,
azkartuz gure herria.
Haurrendako izan dadin
segurtaturik geroa.

ahalke: latsa**zalu:** arin**haboro:** gehiago**haizatu:** uxatu, ihes eragin**airez jauzarazi:** leherrarazi**egari:** jasan**fidantza:** konfiantza

23. JELKALDIA

Mundutegi euskal traidoreak saratar erbesteratuen lurak hartu nahi ditu.

Mundutegi**161**

Herritarrak hor ez direno,
ontsa balia dezagün
Hontarzunak pikarraitüz,
etxe güziak suntsitüz.

162

Üztaritze herriari,
izena diogü kanbiatüko
« Marat sur Nive » deitüra,
aitzinara erabiliko.

Domingok eta lagunek Mundutegi
haizatzen dute.

Domingo Garat**163**

Hor hiza hor traidorea,
saldü dük gure Herria
Holako lan zikin hori,
hire gain dük ezarria.

Herritar bat**164**

Heltü gosea bezala,
nahi izan dük baliatü
ohoiner egiten dena,
hiri gük eginen deagü.

Domingo Garat**165**

Orai hor da tenorea,
traidoren erabakia
Herrietan ebatsiak,
zale gibel ützültzia.

166

Anaiak hola tratatüz,
ez düzüe ahalkerik
Zorren egün pakatzea,
züentako düzü jinik.

23. JELKALDIA**Mundutegi****161**

Herritarrak hor ez direno
ontsa balia dezagun,
ondasunak pikarraituz,
etxe guztiak suntsituz.

162

Uztaritze herriari
izena diogu kanbiatuko.
'Marat sur Nive' deitura
aitzina erabiliko.

Domingo Garat**163**

Hor haiza, hor, traidorea?
Saldu duk gure herria.
Horrelako lan zikin hori
hire gain duk ezarria.

Herritar bat**164**

Heldu, gosea bezala.
Nahi izan duk baliatu.
Ohoinei egiten zaiena
hiri guk eginen diagu.

Domingo Garat**165**

Orain hor da tenorea
traidoreen erabakia.
Herrietan ebatsiak
zalu gibel itzultzea.

166

Anaiak horrela tratatuz
ez duzue ahalkerik.
Zorren egun pagatzea
zuendako da jinik.

direno: diren bitartean**pikarraitu:** gabe utzi**haiza?:** al haiz?**ohoin:** lapur**traidoreen:** traidoreentzat**ebatsi:** ostu, lapurtu**zalu:** arin**gibel:** atzera**ahalke:** lotsa

KANTA XII**Sarako iheslarien kantua****I1**

Norat ari zirezte, ardi herratüak
Mügaz bestaldealat, bizia gogoan
Jauna zük otoi ahatz, gure tzarkeriak
Goseak ez gitean, hilaraz bortüan.

I2

Emazte ezkontüak, txerkatzen senarra
Gizona bere aldetik, non düan anderea
Norat joan da Ama, non da arren Aita
Zonbat hunkigarri den, haien bihotz mina.

I3

Riojako бүрү beltza, ez da ürrikari
Bere armak erakutsiz, gütü mehatxatzen
Isil isila guri, ekarten hazkürri
Eüskaldünek deiküe jatea emaiten.

I4

Guri ez otoi galdegin, non diren anaiak
Mügaz bestaldealat, joanik haurrideak
Egün batez beigirade algarretaratüak
Eginen beitügü bat, zazpi probintziak.

KANTA XII**Sarako iheslarien kantua****I1**

Norat ari zarete, ardi herratuak?
Mügaz beste alderat, bizia gogoan.
Jauna, zuk otoi ahantz gure txarkeriak,
goseak ez gaitezen hilaraz bortuan.

I2

Emazte ezkonduak xerkatzen senarra.
Gizona bere aldetik non duen anderea.
Norat joan da ama? Non da, arren, aita?
Zenbat hunkigarri den haien bihotz mina.

I3

Errioxako buru beltza ez da urrikarri.
Bere armak erakutsiz gaitu mehatxatzen.
Isil-isila guri ekartzen hazkurri,
euskaldunek digute jatea ematen.

I4

Guri ez otoi galdegin non diren anaiak.
Mügaz beste alderat joanik haurrideak.
Egun batez baikara elkarretaratuak,
eginen baitugu bat zazpi probintziek.

herratu: bidea galdu**bortu:** mendi**xerkatu:** bilatu**urrikarri:** errukarri**isil-isila:** isilik**hazkurri:** elikagai**haurride:** neba-arrebak

24. JELKALDIA

Domingo, bere lagunekin eta arreba serorarekin.

Emanuela**167**

Domingo ene anaia,
lüzaz hitarik berexia
Zoin boztariotsü nizan,
hire ondoan izateaz.

Dassance**168**

Hiri medioz Lapurdik,
üken dübürüzagi bat
Domingo hiri pentsatüz,
behar dügü joan aintzina.

Halsuet**169**

Herritarrek oraidanik,
hain lüzaz sofritürik
Beren hontarzün güziak,
nahi dütüe ützülirik.

Domingo Garat**170**

Etsai güziak haizatüz,
bürüa düzie altxatüko
Eta herri hunen jabe,
züer esker ber jarriko.

171

Egün diat erabaki,
eskolen idekitzea
Erakaskuntzan nahi dü,
Frantsesarekin Eüskara.

Dassance**172**

Herriko eskola dadin,
bi hizkuntzetan emana
Plazak izan ditian bihar,
pelotakari Eüskaldünak.

Domingo Garat**173**

Urtez emanik izerdi,
züen lagüntzarekilan
Heltzen niz orai mugalat,
gogo bihotzak bakean.

174

Orai züen gain üzten dü,
ene Lapurdi maitea
Bereziki Üztaritze,
goratüz Eüskal Herria.

24. JELKALDIA**Emanuela****167**

Domingo, ene anaia,
luzaz hitarik berezia.
Zein bozkariotsu naizen
hire ondoan izateaz.

Dassance**168**

Hiri medioz Lapurdik
ukan du buruzagi bat.
Domingo, hiri pentsatuz
behar dugu joan aintzina.

Halsuet**169**

Herritarrek oraindanik,
hain luzaz sufriturik,
beren ondasun guztiak
nahi dituzte itzulirik.

Domingo Garat**170**

Etsai guztiak haizatuz,
burua duzue altxatuko,
eta herri honen jabe
zuei esker birjarriko.

171

Egun diat erabaki
eskolen irekitzea.
Irakaskuntzan nahi dut
frantsesarekin euskara.

Dassance**172**

Herriko eskola dadin
bi hizkuntzetan emana,
plazak izan ditzan bihar
pilotari euskaldünak.

Domingo Garat**173**

Urtez emanik izerdi
zuen lagüntzarekin,
heltzen naiz orain mugarat,
gogo-bihotzak bakean.

174

Orain zuen gain uzten dut
ene Lapurdi maitea,
bereziki Uztaritze,
goratuz Euskal Herria.

haizatu: uxatu, ihes eragin

KANTA XIII
Domingoren hiltzea

m1
 Orai heltü da egüna,
 biziaren ürrentzean
 Kuntükaren egitea,
 herritarren aitzinean.

m2
 Lapurdiko ordezkari,
 anaiarekin haütatü
 Traidore batzü bezala,
 gure bürüak senditü.

m3
 Parisen hartü xedeak,
 ez gogorki kondenatü
 Ordüan Eüskal Herriak,
 abantailak oro galdü.

m4
 Ene bihotzeko mina,
 Herriaren gaizki saltzea
 Sekülan ez düt ahatzeko,
 Lapurtarren batzarrea.

m5
 Geroztik ene ametsa,
 Üztaritzerat ützültzea
 Han berriz lan egiteko,
 azkar beinüan xedea.

m6
 Orai zuri niz ützültzen,
 zü ene azken jüjea
 Parka otoi ene hütsak,
 sar nadin paradisüan.

KANTA XIII
Domingoren hiltzea

m1
 Orain heldu da eguna
 biziaren urrentzean
 kontuaren egitea
 herritarren aitzinean.

m2
 Lapurdiko ordezkari
 anaiarekin hautatu,
 traidore batzuk bezala
 geure buruak sentitü.

m3
 Parisen hartu xedeak
 ez gogorki kondenatu,
 orduan Euskal Herriak
 abantailak oro galdu.

m4
 Ene bihotzeko mina,
 herriaren gaizki saltzea.
 Sekulan ez dut ahantziko,
 lapurtarren batzarria.

m5
 Geroztik ene ametsa
 Uztaritzerat itzultzea,
 han berriz lan egiteko
 azkar bainuen xedea.

m6
 Orain Zuri naiz itzultzen.
 Zu, ene azken jujea.
 Barka otoi ene hutsak,
 sar nadin paradisuan.

urrendu: amaitu

batzarri: abegi

azkar: sendo

juje: epaile

KANTA XIV
Goraintziak Domingori

n1

Domingo adiskidea,
 azken agurra zuri,
 Guri erakatsiz bidea,
 esker beroak zuri.

n2

Ikus arte herritarra,
 Har ezazü pausüa.
 Ikus arte herritarra,
 Har ezazü pausüa.

n3

Lapurtarrak, Nafartarrak,
 ala Xüberotarrak,
 Gü Eüskaldün sortü gira,
 hola date bizia.

n4

Xüberoko, Lapurdiko,
 Oso Eüskal Herriko.
 Xüberoko, Nafarroako,
 Oso Eüskal Herriko.

KANTA XIV
Goraintziak Domingori

n1

Domingo adiskidea,
 azken agurra zuri.
 Guri erakutsiz bidea,
 esker beroak zuri.

n2

Ikus arte, herritarra.
 Har ezazu pausua.
 Ikus arte, herritarra.
 Har ezazu pausua.

n3

Lapurtarrak, nafarrak
 ala zuberotarrak,
 gu euskaldun sortu gara;
 horrela dateke bizia.

n4

Zuberoko, Lapurdiko,
 oso Euskal Herriko.
 Zuberoko, Nafarroako,
 oso Euskal Herriko.

pausu: atsedan

dateke: izango da

AZKEN PEREDIKÜA**175**

Adixkideak hortan da,
egün ürrentzen pastoral,
Eskertü nahi zütüegü,
güzien ernetarzünaz.

176

Garaten istoriak,
üzten deikü erakaspén,
Gizonen erabakiek,
düe herri bat moldatzen.

177

Iraultza piztü zenean,
Euskaldüna zen bakean,
Xedeak hartüz biltzarretan,
ororen errespetüan.

178

Garat anaien indarrak,
debaldetan ziren hurtü,
Etsaiek saldoan beitzüen,
gure eskübideak baztertü.

179

Batekin egin hitzarmen,
bestearekin ezkontü,
Azkenean zer da agitzen,
biek zütüe izorratü.

180

Herri huntan ez ote da,
jelkiko aitzindari bat,
Harek düalarik axola,
gure züzenen zaintzea.

181

Ipar eta Hego aldeek,
düe ber бүрү haustea,
Indarkeriaz beitira,
etxekirik zapatüak.

182

Hortan dügü ürrentüko
gaurko gure perediküa,
Bakotzak ediren dezala,
non düan bere bidea.

183

Pastorala bizi bedi,
Xübero osoan gainti,
Hori beno ederragorik,
ez beita ihon ageri.

AZKEN PEREDIKUA**175**

Adiskideak, horretan da
egun urrentzen pastoral.
Eskertu nahi zaituztegu
guztien ernetasunaz.

176

Garaten istoriak
uzten digu irakaspén:
gizonen erabakiek
dute herri bat moldatzen.

177

Iraultza piztu zenean
euskalduna zen bakean.
Xedeak hartuz biltzarretan,
ororen errespetuan.

178

Garat anaien indarrak
debaldetan ziren urtu,
etsaiek saldoan baitzituzten
gure eskubideak baztertu.

179

Batekin egin hitzarmen,
bestearekin ezkondu.
Azkenean, zer da agitzen?
Biek zaituzte izorratu.

180

Herri honetan ez ote da
jalgiko aitzindari bat,
hark duarik axola
gure zuzenen zaintzea?

181

Ipar eta Hego aldeek,
dute ber buruhaustea,
indarkeriaz baitira
atxikirik, zapalduak.

182

Horretan dugu urrenduko
gaurko gure peredikua.
Bakoitzak ediren dezala
non duen bere bidea.

183

Pastorala bizi bedi
Zuberoa osoan gaindi,
hori baino ederragorik
ez baita inon ageri.

urrendu: amaitu**ernetasunaz:**
arretagatik**agitu:** gertatu**jalgi irten****zuzen:** eskubide**ediren:** aurkitu

KANTA XV**Herri bat: Zuberoa****o1**

Bard'arratsean, ametsetarik,
Oihü azkar bat, Maule Gainetik,
Harek erraiten, Herritarreri,
Jünta gitian, gü algarrekin.

o2

Atharratsetik Maule hirilat,
Maidalenatik, San Antonila,
Denek ber botza, Xüberotarra,
Oihüstatzea, maite dügüla.

Errepika

Herri bat asmatü, gük behar dügüla
Maidalena gainetik, San Antoniala
Hura izanen beita, gure Xüberoa
Xüberotarra date, Herriko hizkuntza.

o3

Herri ororek, maite pasterala,
Bedatsean ere, plazan maskarada,
Eliza bestan, dantza jauziak,
Ostatüetan, kantü zaharrak.

Errepika**o4**

Oro gitian, zahar gazteak,
Jünta betikoz, algarrekilan,
Ikus ditzagün Xüberotarrak,
Eskü emanik, herri batean.

Errepika**KANTA XV****Herri bat: Zuberoa****o1**

Barda arratsean ametsetarik
oihu azkar bat Maule gainetik.
Hark erraten herritarrei:
«junta gaitezen gu elkarrekin».

o2

Atharratsetik Maule hirirat,
Maidalenatik San Antonira,
denek ber boza: zuberotarra.
Oihuztatzea maite dugula.

Errepika

Herri bat asmatu guk behar dugula
Maidalena gainetik San Antonira,
hura izanen baita gure Zuberoa.
Zuberotarra dateke herriko hizkuntza.

o3

Herri oroek maite pasterala.
Bedatsean ere, plazan maskarada.
Eliza bestan, dantza jauziak;
ostatuetan, kantu zaharrak.

Errepika**o4**

Oro gaitezen, zahar, gazteak,
junta betikoz elkarrekin,
ikus ditzagun zuberotarrak
esku emanik herri batean.

Errepika

barda: bart
azkar: indartsu

bedatse: udaberri